

# elkar

NEGUA 2013
34. ZENBAKIA
www.elkar.com

*Txoko berria liburu-dendetako apaletan*

## JOLASAK

+

## HAUR LITERATURAN KLASIKO BIHURTU DIRENAK

Teresa Sala

## KEN ZAZPI & EUSKADIKO ORKESTA SINFONIKOA

Luxuzko erronka

## IZEN PROPIOAK:

Dolores Redondo · Bernardo Atxaga · Garbiñe Ubeda · Zuhaitz Gurrutxaga · Sarah Lark · Koldo Izagirre · José Félix Azurmendi Aingeru Epaltza · Toti Martínez de Lezea · Pirritx , Porrotx eta Marimotots · Mikel Alvira · Ken Zazpi & Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Manolo Urbieta · Gari

8 435226 145341


libbuk 2
Hasiera
18/12, 10:30
ARMA, TIRO, BAMMM!
Arma, Tiro, Bammm!...
Joan Mari Irigoien
ZURETZAT GOMENDATUAK
Ikusi guztiak >
JULIA NAVARRO
Dispara, yo ya estoy muerto
HOBE ISILIK
Haruki Murakami
LOS AÑOS DE PEREGRINACIÓN DEL CHICO SIN COLOR
4 GB
Euskaraz dakien eReader-aren
BERTSIO BERRITUA
elkar
libbuk 2
www.elkar.com

**elkar**

**ALGORTA (GETXO)**
Telletxe 11
94 491 66 16

**ARRASATE**
Erdikokale 14
943 79 78 29

**BAIONA**
Arsenal plaza
559 59 35 14

**BASAURI**
Dr. Jose Garai 11
94 426 13 84

**BERGARA**
Ibargarai 12
943 76 40 50

**BILBO**
Licenciado Poza 14
94 443 47 08

Iparragirre 26
94 424 02 28

Zamudioko ataria
Zazpikale
94 416 14 50

**DONOSTIA**
Fermin Calbeton 21
943 42 00 80

Fermin Calbeton 30
943 42 26 96

Bergara 6
943 42 63 50

**GASTEIZ**
San Prudencio 7
945 14 45 01

Apraiztarrak 1
Campus
945 14 16 70

**HERNANI**
Kale Nagusia 30
943 55 15 37

**IRUN**
Colon pasealekua 8
943 63 17 26

**IRUÑEA**
Comedias 14
948 22 41 67

Larraona z/g
Golem eraikina
948 17 55 38

**TOLOSA**
Arostegieta z/g
943 67 35 33

## ALDAKETEN GARAIA

2013 urtea amaitzear da eta garai hau egokia izan ohi da egindako eta bizitakoaren gainean hausnarketa egin eta etorkizunari begira jartzeko. Ugari eta sakonak dira maila guztietan jasaten ari garen aldaketak, eta dugun egoerari eutsi eta aurrera egin ahal izateko, nola hala denok ari gara ekimen berriak sortu eta garatzen. Kultur aisiaren eskaintza zabaldu eta osatze aldera, gurean ere, jolas, Arte Eder, papertegi, eskulan eta abarrek, geroz eta presentzia handiagoa dute **elkar** sareko liburu-dendetan. Betiko baloreak sustatu eta landuz, bide berriak jorratzen ari gara egoera eta erronka berriei denon artean erantzun ahal izateko.

Euskarak, sormenak, irudimenak, sentimenduek… beti izan dute gure artean leku berezia, gure kulturaren erroa baitira eta eurek gorputzen gaituzte gizarte gisa. Pertsona asko ari gara kultura eta industria uztartzen dituen ekimen hau sustatu, bultzatu eta lantzen. Gure herriko gainontzeko industriak bezalaxe, egokitze garaia bizi dugu, irudimena, ametsak eta bide berriak jorratzeko unea. Etorkizunari begira, geure hizkuntza zainduz, lanpostu eta egitura sendo eta iraunkorrak sortzeko garai berriak dira.

## TIEMPOS DE CAMBIO

2013 llega a su fin, y estas son fechas propicias para reflexionar sobre lo realizado en los últimos meses y mirar de frente al futuro. Son tiempos de cambios profundos a todos los niveles, y de una u otra manera todos tratamos de emprender iniciativas para aguantar el tirón y afrontar el futuro. En nuestro caso particular, los juegos, la papelería, las manualidades o las Bellas Artes tienen cada vez mayor presencia en la red de librerías **elkar**, con el objetivo de ampliar y completar la oferta de ocio cultural. Impulsados por los valores que nos han guiado siempre, nos encontramos inmersos en la tarea de abrir nuevos caminos, con el fin de hacer frente entre todos a los cambios que se nos presentan.

El euskera, la creatividad, la imaginación, los sentimientos… siguen ocupando un lugar especial entre nosotros, no en vano son la raíz de nuestra cultura y nos dan una entidad como sociedad. Además de cultural, nuestra actividad es también industrial; son muchas las personas que conforman e impulsan esta industria cultural. Al igual que para el resto de industrias de este país, vivimos tiempo de adaptación. Es época de dar rienda suelta a la imaginación, a los sueños y a nuevos caminos. Son tiempos de cuidar el euskera y nuestra cultura con la vista puesta en el futuro; de crear puestos de trabajo y estructuras sólidas y duraderas.

## Jarrai gaitzazu sarean! ¡Síguenos en la red!

### POSTDATA bloga

**Ikusiena euskaraz:**
- Uxue Alberdiri *Euli-giro* liburuaren inguruan egindako elkarrizketa.
- Eñaut Elorrietaren *Deserriko kantak* diskoko zein abesti gustatzen zaizu gehien? Parte hartu zutenen artean, Antzoki Zaharreko kontzertuko sarrerak zozkatu ziren.

**Lo más leído en castellano:**
- La revista *Euskal Herria*, tras 10 años de andadura, cierra sus puertas en diciembre.
- Sorteo del libro *El muñeco de nieve* de Jo Nesbø, de la editorial RBA.

### FACEBOOK

**Biralitate handiena lortu duten euskarazko sarrerak:**
- Ken Zazpi taldearen eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren arteko proiektuaren bigarren singlea: *Hegoak astindu*.
- Joko Hezitzaileen Jardunaldiak antolatu dira (Haba, Djeco) Donostiako elkar aretoan.

**Contenido más viral en castellano:**
- elkar paper propone un mundo de nuevas técnicas que han venido a revolucionar el ocio creativo para todas las edades.
- La editorial Txertoa ha publicado *Cosmética Natural* de Gabriel Vázquez Molina.

### TWITTER @elkar

**Interakziorik handiena eragin duten euskarazko sarrerak:**
- Ruper Ordorika: "Saiatu gara kantuok gure alorrera ekartzen, begiminez baina libertatez.".
- Patxi Huartek, "Zaldi Eroak", *De Rerum Natura 5* komikia kaleratu du.

**Contenidos más interactivos:**
- Firma de libros de Albert Espinosa en elkar de Gasteiz con el libro *Brújulas que buscan sonrisas perdidas*.
- Ramiro Pinilla *Aquella edad inolvidable* (Tusquets). Premio Euskadi 2013, en castellano.






# JOLASAK OPARI · REGALA JUEGOS

Gizartearen beharrak eta ohiturak aldatuz doaz, eta **elkar** sareko dendetan ere aldaketa hauetara egokitzen ari gara. Azken hilabeteotan jokoak eta jolasak gero eta leku gehiago hartzen joan dira dendetako apaletan: logika, lankidetza edo lehia, memoria, estrategia, esku iaioak, irudimena, sormena, zortea…. dena da lagungarri, jolaserako gogoa edukiz gero. Haur eta helduentzat, taldean zein bakarka aritzeko, guztiontzat dago ondo pasatzeko eta, aldi berean, gure gaitasunak landuz, hazteko eta ikasteko aukera. Eskulanek, mozorroek eta etxeko txikiei zuzendutako jostailuek ere bere lekua izango dute. Eta hori guztia, kulturaren gordeleku diren liburu-denden eremuan. Etorri jolasera!






## Hotel Deluxe

Bihur zaitez eraikitzaile bat. Erosi lurrak, lortu eraikitzeko baimenak eta altxatu hotelak besteek baino irabazi gehiago lortzeko.

Conviértete en un constructor. Compra tierras, consigue permisos de construcción y edifica hoteles para ganar más dinero que los demás.






## Txokolatezko kioskoa
## El kiosco de chocolate




## Dixit

Fantzian, Espainian eta Alemanian urteko jokorik onena aukeratua izan da. Zure kartetako bat esaldi batez deskribatzean datza jolasak. Ezkutatzen dituzten sorpresa eta sekretuak deskubritzeko jokalariaren garunetan barneratzeko jolasa.

Premiado como mejor juego del año en Francia, España y Alemania. Elige una de tus cartas y busca una frase que evoque su imagen. Un recorrido por la mente de los jugadores, donde se esconden sorpresas y secretos.

## Artisten xaboiak
## Jabones de artista






## Piknik duo sukaldea




## Móvil sistema solar

## Story express circus






## Ubongo

Trebetasun eta ikusmen jokoa. Harribitxiak zure oholean sartu behar dituzu beste jokalariek baino lehen.

Un juego de habilidad y visión espacial en el que tendrás que colocar gemas en tu tablero y conseguir hacerlo antes que los demás.




## ABC Dring!

Hiztegi eta arintasun jolasa

Juego de rapidez y vocabulario




## Bikingoak *Vikingos*

Jolasa ondo irudikatzen duen vikingo ausartak soilik ihes egingo die zurrunbiloei.

Sólo un valiente vikingo con gran visión podrá escapar de los remolinos.




## Ehungailu erraldoia
## *Telar gigante*




## La noche de las sombras mágicas

Esta noche es la fiesta de los habitantes mágicos del bosque. Brujas, elfos, dragones, unicornios… todos bailan alrededor de la hoguera, mientras se dibujan sus sombras. ¿Quién será capaz de adivinar a quién pertenece cada sombra? Un divertido juego lleno de magia y fantasía, que encantará a grandes y pequeños.



## Bit orange



## Nire lehen brikolaje orga
## *Mi primer carro de bricolaje*

## Proposamena



**ZUHAITZ GURRUTXAGA**
Aurkezlea

# DORIAN GRAYREN ERRETRATUA

Hamar urte joan dira liburua ezagutu nuenetik. Hogeita hiru urte nituen. Artean Madrilen bizi nintzen, urtebeterako Rayo Vallecano futbol taldean jokatzera joana bainintzen. Egiari zor, garai haietan ez nuen batere irakurtzen. Nire zaletasunak bestelakoak ziren, eta gehienetan kultura munduarekin zerikusi handirik ez zutenak. Futbola, Gran Hermano, bideo-joko eta halakoekin gozatu ohi nuen. Egun batean ordea, nire bizimoldearen norabidea guztiz eta betiko aldatuko zuen pertsona ezagutu nuen. Hark eraman ninduen lehenengoz antzokira, berak gonbidatu ninduen aurreneko aldiz museora eta oparitu zidan lehen liburua. Oscar Wilde idazle irlandarraren *The picture of Dorian Gray* edo *Dorian Grayren erretratua* zen liburu hura. Irakurketarako batere zaletasunik ez nuen une hartan, eleberri hura parean aurkitzea miraria izan zen niretzat.
Basil Hallward margolaria, Dorian Gray izeneko gazte baten edertasunarekin liluratuta gelditzen da, eta mutilaren erretratu bat margotzeari ekingo dio. Tarte honetan baina, Dorianek Basilen lagun den Lord Henry Wotton ezagutuko du, eta honek bizitzan benetan axola duen bakarra edertasuna eta gaztetasuna direla sinestaraziko dio. Mutil gaztea, lizunkeria eta perbertsioz beteriko bizimodua bizitzen hasiko da. Hori izango da eleberriaren korapiloaren mamia. Bukaera ez dut kontatuko, noski.
Ni maitemindu ninduena ordea, ez zen liburuan kontatzen den istorioa izan. Lord Henry Wotton pertsonaiak txunditu ninduen ni. Bere bizi filosofia hedonista azaltzeko era lotsagabeak. Garaiko Ingalaterra Victorianoaren aurrean erakusten zuen jarrera zinikoak. Lord Henryk istorioan zehar esaten duen hitz orok sortzen du zirrara. Gizon azkarra, etorri itzelekoa, distiratsua. Gehienen ustetan Oscar Wilde idazlearen alter egoa izan daitekeena.
Duela hamar urte oparitu zidaten liburu jada zarpaildua, hainbat lagunen eskuetatik pasa da orduz geroztik. Oraindik ere, bere orrialde horiztatuetan barna Lord Henry delakoaren bakarrizketen bila aritzen naiz. Gaur egun, zoritxarrez, orain dela hamar urte liburu honek sortu zidan hunkipena sentiarazi didan libururik ez dut aurkitu. Ongi bilatu ez dudalako izango da, ziurrenik. Jarraituko dut peskizan.



**DORIAN GRAYREN ERRETRATUA**
Oscar Wilde

## Profila

# MIKEL LABOA OHOLTZATIK HONDARTZARA

**JUAN KRUZ IGERABIDE**
Idazlea

Artean gazte eta berde ginela (eta geundela), 60 eta 70ko hamarkadan, Mikelen ahotsa generaman geure gitarra erdi hautsien aho-zuloetan (nork ez zuen astintzen gitarra xaharren bat garai hartan, nork ez?). Eta uste genuen gu geu ari ginela kantari, Trabuko, Haika, eta beste. Baina ez zen hala; ahots hura gitarretan txertatuta zegoen; eskuetan hartu ahala, ahots hark bereganatu egiten gintuen. Horregatik zituen Mikelek hainbeste imitatzaile, haren antzeko ahotsak, haren antzera aritu nahi zuten ahotsak.

Oholtzatik bihotzera egin zuen lehen jauzia, eta hantxe txertatu zizkigun Artzeren hitzak, Brecht, Yupanqui, herri tradizioko baztertuak eta heterodoxoak…, munduan egoteko modu bat, inoiz ondo ulertu ez geniona, manipulatu geniona (neu ere tarteko nintzen, zertan ukatu; hamasei urterekin zer besterik egingo genuen?), eta hala ere maite gintuen, tolesik gabe.



Eta ekarri zituen aire/ahaire berriagoak ere, Atxaga, Sarri… eta ulertu genion ez dakit zer, geure erara, bakoitzak bere erara, era ugaritara, gero eta sakabanatuago, mila zatitan multiplikatuak, Rimbaud etorri ote zen edo, eta haren ondorengo basamortua, ideiena eta bihotzena, eta hala ere maite gintuen tolesik gabe.

Atxagarekin Asteasun Garmendiarenean bazkaldu genuen hartan, edo, beste hartan, Adunan, hura ez dakit nora begira, eta ni semetxoa eskola neramala, eta kaixo, eta zuka, eta frontoi zaharrak oihartzun egiten haren hitzei, eta hura beste Mikel Laboa bat izan, beste gizon bat hura, hauskorra; begi batek kantatu egiten zion, eta besteak infinitua zeraman betseinean.

Eta isilune luze haiek, eta gero denbora luzean ikusi ez, gaixo edo bere baitan bildua, edo sorgin milikiliklik batek bereganatua, ez genekien garbi zerk, azala besterik ez baikenion ikusten, azaletik baino ez baikenizkion entzuten oihu lazgarri eromenaren mugako haiek. Eta ez genituen ulertu orduan ere haren ahotsaren murmurioak, eta are gutxiago lotu genituen korronte garaikideekin, ezjakinez baino gehiago ez jakin nahiez. Eta hala ere maite gintuen, tolesik gabe.

Harekikoak, guztiak polita zirudien, bihozbera, mina kenduz gero; baina mina ezin kendu haren ahotsetik; unerik ganberroenean ere, txulita, no te me achicopales, mina irteten zitzaion eztarritik, betiereko angina existentzial sendaezinak; angina haien bibrazioa oso nabaria zuen ahotsean, beharbada ezin baten emaitza ziren, oso maitagarria, baina ezina azken batean.

Azken elkarrizketa Ondarretako hondartzan, biok bainatzen, ni igerilari baldarra, bera zahar eta akitu samartua, parez pare apusturako. Eta orduan ere begi bat kantari, eta bestea infinituan isilik. Itsasoa zain zeukan, eta bazekien; eta, berekin eraman zuenean, agur egin zuen ezpainez, zeiñe, zuiñe, e, e… alegia, maite gintuela, tolesik gabe.

# *GURE JERUSALEM GALDUA* LIBURUAREKIN AINGERU EPALTZAK *ERRESUMA ETA FEDEA* TRILOGIA OSATU DU



## *Monumental eta dibertigarria*










Izan zen garai bat, kultura eta trebezia handiko idazleek noizean behin nobela historikoak idazten zituztena: Gore Vidal-en *Julian* (*Juliano el Apóstata* gaztelaniaz), Marguerite Yourcenar-en *Hadrianoren oroitzapenak* (Joxe Austin Arrietak euskaratua), Manuel Mujica Láinez-en *Bomarzo*… Garai jakin batean murgiltzeaz gain, hizkuntzaz eta estiloz ere irakurleen festa izaten ziren eleberri horiek. Gero, generoaren hedatze izugarri bat gertatu zen, obra, egile nahiz irakurle kopuruan, baina ezin esan inola ere lehengo kalitateari eutsi zitzaionik.



Aingeru Epaltza nobela historiko onenaren tradizio hartan kokatuko nuke, zalantzarik gabe. Narratzaile bikainaren ospea bereganatua zuela (besteak beste, *Ur uherrak*, *Tigre ehizan* eta *Rock'n'Roll* nobelei esker), XVI. mendean kokaturiko eleberri-proiektu handi bati ekin zion, Nafarroaren independentzia-galtzea kontatzeko, fikziogilearen luma trebez bezainbat historiaren ezagutza sakonez. Horrela sortu zen "Erresuma eta Fedea", orain dela hamar bat urte idazten hasi eta orain amaitu den trilogia, hiru liburuz osaturiko triptikoa: *Mailuaren odola* (2006), *Izan bainintzen Nafarroako errege* (2009) eta *Gure Jerusalem galdua* (2013). Eta horrela sortu zen, orobat, Joanes Mailu, eleberrion kontatzaile eta protagonista, nafar erregeen sasiko semea bi aldiz, Erresumaren eta Fedearen (Eliza katolikoa utzita kalbinista egin baitzen Joana Albretekoa) defendatzaile bipil eta nekagaitza.

Trilogiak bere osoan mende bat kontatzen du, 1512an Gaztelak Nafarroa konkistatzen duenetik 1610ean Henrike III.a Nafarroako erregea (Frantziako IV.a) Parisen hiltzen duten arte. Lehen liburukiak hartzen du urterik gehien, Joanesen aitatxi Migelen historia kontatuz, bere fideltasun eta borrokarako kemenagatik "Mailu" leinu-izena irabaziko duena, eta berau da, aldi berean, hiruretan epikoena, batailaz beteena.

Bigarrenaren tonua jostalariagoa da eta Parisen gertatzen da gehienbat, urte gutxitan, Henrike errege nafarra Margarita Valoiskoarekin (*La reine Margot*) ezkondu zen garaitik, San Bartolome gauean amaitu arte (katolikoek hiriburuko higanot guztiak hiltzen saiatzen direnean). Tartean aurkituko ditugu gorteko aretoetako azpikeriak, logeletako lizunkeriak eta beste hainbat trikimailu.

Azkenak, berriz, hainbat estilo biltzen ditu bere baitan: batetik, abenturaz betea da, tartean direla kartzelak eta galerak, Mediterraneotik Pariseraino; bestetik, ilunabarreko *western* deritzen horien antzera, halako doinu malenkoniazko batez janzten da, Joanes Mailu zahartu, mila jipoi hartu eta bere printzipioei uko egin ez dien bakarra dela konturatu ahala; eta azkenik, badago metaliteraruzko keinu bat ere, Mailuren antagonista, etsai eta aldi berean miresle den Axular euskal apaiz, gero idazle goren izango zenaren bitartez.

Hitzezko monumentu bat jaso du Epaltzak, historia eta istorioa ezin hobeki uztartzen dituena, gure lehenaz interesa duten egungo eta biharko euskal irakurleak liluratuko dituena. Baina, obraren gailentasunaz gain, zenbateraino den dibertigarria azpimarratu nahi nuke, fikzioaren magia guztiaz hornitua eta umorearen erregistro ugariz ondua, ironia finetik algara zabalera.

**TERESA LARREA**
Kazetaria



· flashback ·



**KATIXA AGIRRE** IDAZLEA



# VIÑETAS EN MOVIMIENTO

El estreno en el pasado Zinemaldia de *Zipi y Zape y el club de la canica* (**Oskar Santos**, 2013), nos ha recordado que hay vida más allá de los superhéroes, y que también se adaptan al cine cómics que no nos hablan de Superman, Ironman o Spiderman. Así que vamos a dejar de lado las misiones para salvar el mundo y nos centraremos en otras historias que de la viñeta han saltado a la pantalla.

Antes que los gemelos gamberros creados por Escobar, otros famosos de la historieta, *Mortadelo y Filemón*, habían tenido ya su momento cinematográfico. Fue **Javier Fesser** quien en 2003 llevó al celuloide (con multitud de efectos especiales) a los agentes de la TIA en *La gran aventura de Mortadelo y Filemón*.

El cómic franco-belga nos ha dejado adaptaciones cinematográficas más numerosas. Astérix y Obélix, los resistentes galos creados por **Goscinny y Uderzo**, son ya personajes fílmicos habituales. Hasta doce veces se han adaptado sus historias a la pantalla: ocho en películas de animación y cuatro en imagen real. En 2014 llegará la última adaptación, esta vez en formato 3D y a cargo de los directores **Louis Clichy** y **Alexandre Astier**, que llevará por título *Astérix. La Residencia de los dioses*.

El otro grande del álbum franco-belga, *Tintín*, no se ha quedado atrás. En vida de su creador **Hergé**, Tintín pisó los platós cinematográficos hasta en cinco ocasiones, y en 2011 volvió a lo grande, bajo la batuta de **Steven Spielberg**, para quien *Las aventuras de Tintín: el secreto del Unicornio* solo es la primera de una trilogía largamente planeada.

Pero si nos alejamos de la historieta juvenil podemos encontrar también exitosas adaptaciones de cómics. Tal es el caso de *Persépolis*, la novela gráfica autobiográfica de la iraní **Marjane Satrapi** en la que narra sus andanzas desde la caída del Sha de Persia en 1979 hasta su emigración a Francia. El film del mismo título fue dirigido en 2007 por la propia autora y **Vincent Paronnaud**. La pareja repitió en 2011, llevando a la pantalla la novela gráfica de la iraní *Pollo con ciruelas*.

En 2010 se estrenaba *María y yo*, un documental basado en la novela gráfica de **Miguel Gallardo** (Astiberri, 2007), otra historia autobiográfica que narra las vacaciones que el autor disfruta en un resort de las Islas Canarias con su hija autista. *Arrugas* (Astiberri, 2008), novela gráfica de **Paco Roca** que con crudeza y ternura a partes iguales nos habla de los estragos del Alzheimer, se llevó el Premio Nacional del Cómic en 2008. Al poco tiempo dio el salto a la gran pantalla, convertida en película de animación de la mano de **Ignacio Ferreras**.

Vayamos a Hollywood. *Camino a la perdición* (Sam Mendes, 2002), la última película en la que participó **Paul Newman**, tiene su origen en un cómic noir, que narra las desventuras de un padre y un hijo tratando de sobrevivir en los Estados Unidos de la Gran Depresión. La novela gráfica, que firman **Max A. Collins**, **R. Piers Rayner** y **J. Luis García-López**, se publicó por primera vez en castellano en 2011, dentro de la colección Panini Noir.

La colaboración entre el director **David Cronenberg** y el actor **Viggo Mortensen** nos tiene acostumbrados a buenos resultados. Basta mencionar *Una historia de violencia* (2007). La película, protagonizada por un hombre a quien el pasado le hace una visita inoportuna, está basada en *Una historia violenta*, novela gráfica de **John Wagner** y **Vincent Locke** publicada también por Panini Noir (2011).

Nos queda el espacio justo para mencionar una sola de la extensa filmografía japonesa basada en la manga. Con *Akira* y su Tokyo futurista –novela gráfica y película del mismo autor, **Katsuhiro Otomo**–, nos despedimos y corroboramos que, efectivamente, no hacen falta superpoderes para dar el salto al cine.






EXPRAI

# LASTER
## liburu-dendan...

Urte berriarekin liburu-dendetako apalategiak ongi berotuko dituzten liburu eta diskoak helduko dira. **Pamielak** urtarrilean **Anthony Browne**-ren beste lan bat argitartuko du: Basoan barrea, Galiziako Kalandraka argitaletxearekin elkarlanean.

**Mondadorik** Neal Carey detektibearen bigarren liburua iragartzen du. **Don Winslow** idazleak Tras la pista del espejo de Buda dakar, misterioz betetako eleberria.

La práctica de la medicina en el siglo XVII es el tema central de El sol bajo la seda de **Éric Marchal**, un best seller en Francia y que llegará a nuestras librerías en febrero de la mano de **Grijalbo**.

Bestalde, **Elkar** argitaletxea zenbait lan prestatzen ari da urte berrirako, besteak beste: Igartza saria irabazi zuen **Danele Sarriugarter**en Erraiak, eta **Ana Malagon**en Lasai, ez da ezer gertatzen ipuin bilduma.

Una de las apuestas de **Lumen** es el libro de memorias de la cantante **Patti Smith**, Los tejedores de sueños, que puede leerse como complemento de su anterior libro.

**Txalaparta** argitaletxean **Asier Serrano**ren Abisalia eleberria prestatzen ari direla aurreratu digute. Eta martxoan, **Charo Roquero** donostiarraren Historia de la prostitución en Euskal Herria liburua kaleratuko dute.

Para el primer trimestre de 2014, **Mettok** ya está trabajando en Mr Smith, la última novela de **Juha Seppälä**, escritor finlandes de reconocido prestigio literario.

**Denonartean** argitaletxeak ere proiektu ezberdinak ditu labean: besteak beste, The Watson, **Jean Austen**en liburua, Ana Isabel Moralesek itzulia; **Yurre Ugarte** eta **Eneko Ugarte**ren eskutik, Nahi eta Nabil haurrei zuzendutako liburua; eta **Rogel Pol-Droit**en Filosfia alabari azaldua, **Inma Erreak** itzulia.

El prolífico escritor **Frederick Forsyth** ofrece en su nueva novela, La lista, su visión de los problemas políticos que causa el terrorismo islámico. Lo anuncia **Plaza & Janés** para mediados de febrero. También avanza para el 3 de enero la publicación de la nueva novela de la escritora peruana **Isabel Allende**: El juego de Ripper.

**Sua** argitaletxea bestetik, sei liburuz osatutako Euskal Herria liburu bilduma prestatzen ari da. Bertan, azken hamar urtetan Euskal Herria aldizkarian jasotako hainbat eduki bilduko dira. Lehen alea, Ama Lurra izango da.

**Txertoa** ere datorren udaberrirako zenbait lan atontzen ari da. Bi historia liburu: **Pedro Ugarte**ren Historia de Bilbao, eta **Javier Sada** historialariaren Donostia eta Lehen Mundu Gudari buruzko lana. Baita **Alberto Ladrón Arana** iruindarraren Nada que perdonar ere.

Musikan ere bada aurreratzekorik. **Gaztelupeko Hotsak** diskoetxeak gogor emango dio bluesari. Otsailean **Nico Wayne Toussaint & Michel Foizon** bikote baionarraren eta **Travellin´Brothers** bilbotar beteranoen lanak kaleratuko ditu. **Errabalk jazz** zigilua bestalde, beste bi disko bideratzen ari da: **Nevermind hirukotea**ren hirugarren lana eta **Skytrain** taldearen azkena.



*Hobe isilik*

# GARBIÑE UBEDA

## *“36ko gerra itxi gabeko kapitulua da etxe gehienetan. Joan eta etorri egiten da gure galbahetik, periodikoki, mamua bezala”*

**Garbiñe Ubeda kazetariak Elkar argitaletxeak eta Ondoarroako Udalak antolatutako Augustin Zubikarai beka-saria irabazi zuen iaz *Heldu den iragana* lanarekin. Dagoeneko urtebete pasa da, eta proiektu bezala aurkeztu zuen idazkiak *Hobe isilik* titulupean argia ikusi du. Ubedak kazetaritzan ibilbide luzea duen arren, hauxe du lehen saialdia fikzioaren munduan, eta azpimarratzekoa da testuaren kalitatea, estilo landu eta dotorea, baita pertsonaien taxuera ñabarduraz betea ere.**

**Kazetaria zara eta horregatik eskarmentua duzu testuak idazten. Hala ere, nobela bat idaztea ezberdina da, ezta?**
Guztiz bestelakoa da. Hain zuzen ere, horregatik jo dut fikziora, kazetaritzaren arauak estuegiak zitzaizkidalako kontatu nahi nuen historia kontatzeko. “Zer, noiz, non, nola, zergatik” esparrutik areagoko erregistroa behar nuen, dena ezin da datu bidez eta hotzean azaldu.

**Augustin Zubikarai beka irabazi zenuen *Heldu den iragana* nobela-proiektuarekin, eta orain *Hobe isilik* izenburupean argitaratu duzu eleberria.**
*Heldu den iragana* behin-behineko izenburua zen, proiektua aurkeztu nuenean ere egin nuen ohar hori. Izenburua azkenik erabakitzen den zeregina da nire lan moldean. Iradokorra behar du izan, eta era berean mamia laburbiltzen duena. Liburua amaitu behar izan dut izenburuko hitz egokiak aurkitzeko.

**Fikzioa landu duzu nobela honetan, baina egiazkotik ere badu, ezta? (eleberriaren lehenengo orrian eginiko aipua ere esanguratsua da).**
Amona, aitona, aita eta izebari aipu berezia egin diet atarikoan, haiei gertatutakotik abiatu delako nobela. Funtsean gure etxean gertatutakoa irudikatzen du, baina fikzioa da, antzekotasunak antzekotasun, pertsonaiak asmatuak direlako, eta batzuen eta besteen




**HOBE ISILIK**
Garbiñe Ubeda
ELKAR

ahotan jarri ditudanak niri gogoak emandakoak direlako. Egia badu, baina zatikatuta, moldatuta eta aldatua dago fikzioaren mesedean.

**1936ko Gerra Zibila hartu duzu testuinguru gisa, baina beste ikuspuntu batetik landu duzu.**
36ko gerra itxi gabeko kapitulua da etxe gehienetan. Joan eta etorri egiten da gure galbahetik, periodikoki, mamua bezala. Desagertua da mamuari ondoen egokitzen zaion figura, desagertua hildakotzat jotzen den arren, ezin zaiolako agur esan, ezin da dolurik pasatu eta aurrera egin.

**Beste hainbat gai ere landu dituzu: familia, iragana, identitatea, etab.**
Familia, iragana edo identitatea gure gizartearen oinarritzat ditugu. Tankera honetako lanei heltzen zaienean ekidin ezina da gai horien erreferentzia. Hain zuzen, gure habeak direlako, etengabe kuestionatu beharko genituzke.

**Idazteko estiloari dagokionean, pertsonaia nagusia, hau da kontalaria, aitonari zuka zuzentzen zaio. Zergatik erabili duzu estilo hori?**
Desagertua, hiltzat jotzen denean ere, bizirik dago, ez da sekula erabat joan. Gorpurik agertzen ez den bitartean, bada beti bizirik aurkitzeko itxaropena. Pertsonaia nagusiak edo kontalariak lotura berezia sentitu du aitona desagertuarekiko, hurbil sumatzen du, ondoan balu bezala, horregatik bilatzen du. Bestalde, deskubritzen dituen gauzak ezin ditu beste inorekin partekatu, ongi frogatu eta dokumentatu arte. Egiak aho



biko ezpatak dira nobelan ageri diren kontestuan: jakin nahi ditugula uste dugu, baina jakiteak oinaze ikaragarria sor dezake.

**Horrelako kasuetan derrigorrez galdetzekoa iruditzen zait: gisa honetako beste proiekturik ba al duzu buruan?**
Beste nobelarik idatzi nahi ote dudan galdetzen ari bazara, goizegi da erantzuteko. Baina ibilitakoa ibilita, ez dut uste hemen geldituko naizenik. Leiho interesgarriak zabaldu dizkit literaturak. Molde horretan idazten jarraitu nahi nuke.

**KIZKITZA LARRETXEA**
Kazetaria

**Informazio gehiago:**
**http://postdata.elkar.com/hobe-isilik**



# Bazen behin... TXAKUR, MARTZIANO, PRINTZE , ARKAKUSO ETA ALTXORRAK eta hau hala bazan...

"Zure seme alabak adimentsuak izatea nahi baduzu, irakurri iezazkiezu maitagarri ipuinak, eta, adimentsuagoak izatea nahi baduzu, irakurri iezazkiezu maitagarri ipuin gehiago". **Albert Einstein**en hitzak dira, erabatekoak.

Ez da hau eztabaidarako gunea, baina egia da pertsona helduen memorian haur eta gaztetan izandako erreferente literarioen urratsek luze irauten dutela, ondorio positibo garrantzitsuagoak kausatzen ez badituzte. Eta egia da, baita ere, haur eta gazteentzat idatzi diren istorio anitz helduentzat gomendagarriak liratekeela. "Helduek inoiz ez dute ezer ulertzen bere kabuz, eta umeentzat nekagarria da beti dena azaldu behar izatea", dio *Printze Txikia* liburuko narratzaileak, **Antoine de Saint Exupéry**ren alter ego delakoak.

Bakardadea eta adiskidetasunari buruzko hausnarketa pausatu eta poetikoa eskaintzen du *Printze Txikiak*; haztearekin batera, haurtzaroa bertan behera ez uztea proposatzen du, baldin eta haurtzaroa galderekin, irudimenarekin, xalotasunarekin, egiazkotasunarekin lotzen bada. Klasikoa bilakatu da honez gero, 250 hizkuntza baino gehiagotara itzuli dute, eta historiako liburu salduenetakoa bilakatu da. Duela urte batzuk **Mariasun Landa**k honen inguruan *Bilbao* udal kazetan idatzitakoaren arabera, "*Printze Txikia* gaur eguneko haurrek dastatzeko eskubidea, eta ez betebeharra, duten liburua da. Adinik gabeko liburua, helduekin batera irakurtzeko oso egokia eta, zorte piska batekin, literatura esperimentatzeko bide pribilejiatua izan daitekeena, nire kasuan izan zen bezala".

Euskal literaturaren uzta oparoa izan da azken urteotan. **Xabier Etxaniz**ek *Euskal Haur Literaturaren Antologia*n aipatzen duen lez, "euskal haur-literaturan urte gutxitan aurrerapauso handiak eman ditugu, eta euskal idazleek eginiko ipuinak, nobelak, poemak eta antzerki-obrak kalitatezkoak dira".

Goazen, adibidez, **Bernardo Atxaga**ren kutxa miatzera. Bertan, haur literatura jorratzen duten hogei lan baino gehiago aurkituko ditugu. Baina badira nabarmentzekoak. Xola txakurraren abenturak kontatzen dituzten lau liburuak (*Xolak badu lehoien berri*, *Xola eta basurdeak*, *Xola ehizan*, *Xola eta Angelito*) adibidez. Iragan urrian, gainera, ingelesez argitaratu zen *The Adventures of Shola*, Xolaren abentura guztiak biltzen dituen libura. *Nikolasaren abenturak eta kalenturak* edo *Behi euskaldun baten memoriak*, dira Asteasuko idazlearen ondare oparoan aurkitu daitezkeen beste bi.

*Txan Fantasma* liburuarekin eskuratu zuen **Mariasun Landa**k 1982an Lizardi Saria. Bertan, jostatzea gustatzen zitzaiolako bere fantasma taldea utzi eta bakar bakarrik haur baten bila joaten den fantasma baten istorioa kontatzen du errenteriarrak. *Errusika* ipuinean, ordea, dantzari famatua izatera iritsi den arkakuso bat da protagonista.

**Pello Añorga**ren *Pottoko*k haurren logeletako eta ikastoletako apalak jantzi ditu luzez: "...nahiz oilo eta txakur, nahiz ahuntz, eta behi, nahiz zerri eta nahiz ardien artean, batez ere ardien artean, beee! eta beee! ardi guztiekin batera".

Ezin alde batera utzi **Iñaki Zubeldia**ren *Euskaldun bat Marten*. Askoren aburuz, euskaraz idatzi den zientzia-fikziozko lehen liburua. Zarautzen gehien irakurtzen den liburuetako bat da, eta ez da kasualitatea. Izan ere, istorioa bertan hasten baita: "Lendabizi, haurrak izutu egin ziren baina, ondo begiratu ondoren, ovni eder bata ikusi zuten Santa Barbara gainean". 2008ean Nafarroako haurren bozkekin erabakitzen den JUUL lehiaketan lehenengo saria eskuratu zuen.

Gaien sorta aberatsa da, eta sortzaile gehienek fikzio hutsa jorratzen badute ere, badago historia oinarri hartu duenik ere. Hau da, hain zuzen, **Joxan**



**Ormazabal**en *Pernando Amezketarra*ren kasua. Umorezko liburu bat idatzi zuen Ormazabalek, eta bertan pertsonaiaren ateraldi eta pasadizo esanguratsuenak bildu zituen. Gazte literaturan sailkatua, helduentzat egokia eta euskara ikasteko ere arras aproposa. Euskal Herriko etxe gehienetan txokoa aurkitu duena. Ormazabalek berak sortutako *Kittano* pertsonaiak ere izan du eraginik, auto gorri baten atzeko eserlekuan abandonaturik utzi zuten ijitoa, alegia.

2007an liburu hunkigarri batek eskuratu zuen, Haur eta Gazteentzako Literatura sailean, Euskadi Saria. **Miren Agur Meabe**ren *Urtebete Itsasargian*. 36ko gerraren hotsak aditu orduko, hamahiru urteko gaztea Bilbotik osaba bizi den Bizkaiko herri txiki batera bidaltzen dute gurasoek. Osaba farozaina da, eta urtebete luzea emango du gazteak berarekin. Fikzioa errealitatearekin nahasten da istorio honetan. Izan ere, Gernikako bonbardaketa, euskarazko lehen egunkariaren agerpena, edo Lauaxeta eta Aristimuño bezalako pertsonaiak tartekatzen baitira.

**Kirmen Uribe**k idatzitako *Garmendia* pistolari ondarrutarraren abentura ezberdinek ere gaztetxoak erraz entretenitu dituzte. Gizon kankailua da Garmendia, ehun kilotik gorakoa, isila eta bakartia. Gertaera batzuk tarteko, oso ospetsua egin zen garai batean; bihozgabea izatea eta dozenaka gizon hil izana egotzi baitzioten, nahiz eta zinez eta benetan inork inoiz ez zuen ikusi tiro bakar bat ere botatzen.

**J.M. Olaizola, Txilikuk** sortutako *Osaba bin Floren* liburu bereziak jaso zuen 2004ean Euskadi Literatur Saria. Bertan, Osaba Florentino da protagonista. Behin kaskarreko latz bat hartu zuen, eta medikuak bendak jarri zizkion buruan, durbante baten gisa. Eta durbantearen azpian, Osaba Bin Floren bihurtu zen Osaba Florentino, "Bagdadeko Abus Nuas ipuin-kontalari ospetsuaren adiskide kutuna". Eta Bagdadeko ipuin kontalari batek hiriko plazan nola, halaxe kontatzen ditu ipuinak Osaba Bin Florenek ohetik mugitu gabe. Entzuleek Arabiar golkoan zehar bidaiatuko dute historiaz historia, garai bateko kalifek atsegin zuten modu berean.

Eta garai bateko kalifen modura, historiaz historia bidaiatzen dute egungo haur eta gaztetxoek ipuin klasikoekin, beren guraso eta aiton-amonek egin zuten bezala. Eta, klasikoek izaki, duela mende batzuk sortutako istorioez ari gara, denbora aurrera joan ahala iraungitze data ezagutu ez dutenak.

**Robert Louis Stevenson** eskoziarrak abenturazko eleberrien artean borobilena idatzi zuen




1883ean: *Altxor Uhartea*. Modu batean edo bestean, guztiok gordetzen dugu Jim Hawkins gaztearen oroipenen bat. Flint kapitain pirata ospetsuaren altxor baten mapa aurkitzen du Hawkinsek, eta espedizio oso bat abiatzen da haren bila Hispaniola belaontzian. Liburuaren euskarazko edizioan azaltzen den lez, "*Altxor Uhartea* irakurtzea abenturak bizitzea da, eta abentura beti da arriskutsua eta horregatik baita zirraragarria ere. Arriskuan eta egoera larrietan giza arima ateratzen da, ordea, eta hor beldurrak, bertuteak, miseriak eta bestelako giza ezaugarriak erakusten dira".

Abentura eleberria da **Jules Verne**ren *Munduari bira 80 egunetan*, baita **Lewis Carroll**en *Alizia Herrialde Harrigarrian* ere. Eta azken honen haritik tiraka, **Grimm** anaien sinadura daramaten haur literaturaren historian idatzitako ipuin ospetsuenetara heldu gaitezke. *Edurnezuri*, *Loti ederra* eta *Errauskine* izan daitezke esanguratsuenak, baina sortu zituzten guztiok ezagutzen ditugun beste izenburu mordoa ere: *Hansel eta Gretel*, *Hamelingo txirularia*, *Erpurutxo*, *Botilako jeinua*, *Jostuntxo ausarta*, *Urrezko antzarra*, *Zapataria eta iratxoak* edo *Igela printzea*.

Literaturak utzi dizkigu, historian zehar, ipuin izeneko milaka eta milaka hazi. Ezinezkoa da pertsonaia, istorio eta abentura guztiak bi orrialdetan biltzea. Baina esan daiteke bai, bizitza modu arin eta politagoan ulertzen laguntzen gaituztela. Izan ere, **Hans Christian Andersen**ek esan zuen bezala, "bizitza bera da maitagarrien ipuin zoragarriena".

**TERESA SALA**
Kazetaria






ARGAZKIA: JUANBA BERASATEGI

# KOLDO IZAGIRRE

**Irrikaz espero dute irakurle askok Izagirreren liburu bakoitza; bere genero maiteenera itzuli da, poesiara, *Parisen bizi naiz* bildumarekin, modu libre eta iradokitzaile batez gogoeta egiteko gure bizierez, gure bizilekuez.**

**2006an atera zenituen azken poema liburuak, *Teilatuko lizarra* kantuen bilduma eta *Rimmel* aita-alaba harremanean ardaztua. Oraingo hau, azken urteetan ondu duzu? Lehenagotik hasita zeneukan?**
Aurten idatzi ditut poema guztiak. Hala ere, apunteak neuzkan hartuak. Irakurrian, ibilian, entzunean jasotako paisaiak, kontzeptuak, iritziak…. Saiakera laburrak egiteko asmoa neukan, artikulu luzexkak. Moldatu nituen bizpahiru, eta ez zitzaizkidan batere gustatu. Utzi egin nuen, baina koadernoa mahai gainean neukan eta pixkanaka hartara bihurtu nintzen ostera, miaka. Poemen forma hartzen hasi ziren apunte haiek.

**Gaiak askotarikoak dira: poesia bera, hiria, hizkuntza, bizitza… Nahita bilatutako ugaritasuna da? Libre utzi duzu eskua?**
Bai, liburua ez da ideia, irudi edo alegoria baten inguruan eraikia. Bilduma da, eta bilduman ez dut atalketa tematikorik egin, hariak gurutzatu ditut: bizitza eta heriotza, maitasuna eta politika, hirigintza eta pertsonaiak, kalea eta bazterra… Berdin jokatu dut forma aldetik ere, poema narratibo baten ondoan estrofa zorrotz neurtuak ageriko dira. Baina saski-naski antolatua da nolanahi ere, batasun handia dauka liburuak, azpiz.

**Berrikuntza eta ausarkeria bat: prentsan publikatuak zeneuzkan iritzi-artikulu zenbait sartu duzu, tarteka. Poesiaren trinkotasunetik atsedentxoak eskaintzeko? Ala zure prosazko lanek poesiatik dutena ere agerian uzteko?**
Sei iritzi artikulu txertatu ditudala uste dut. Baina seiek, oro har, hirigintza dute gai nagusia, egunerokoaren antolamendua. Eta oso egoki datoz poemen gaiekin eta tonuarekin. Poemen artean kokatuta, poetikoak direla eman lezake, bai. Artikulu horiek informazio zuzena ematen dute... Esan dizut hasieran saiakera moduko bat nahi nuela egin, gero poemak sortu dira. Lehendik ere zer edo zer esana neukanez gai honetaz prentsan, sartu egin ditut. Atrebentzia logikoa eta koherentea dela uste dut. Hiria eta hirigintza da, zentzu zabalean, poema liburuaren ildo nagusia. Nik horretaz jardun nahi nuen, poemetan izan edo prosan izan.

**Lehenari begira, malenkonia-ukitu batzuk baimendu dizkiozu zeure buruari, harrigarriro esango nuke…**
Izan liteke adin kontua. Baina izan eta ezin batean bizi denak malenkonia bat izatea normala da, etorkizun baten desioa, bestelakotasun bat. Bizi naizen hirian, alameda paristar dekadente eta polita zena, bere urki zuri eta harri txintxarrarekin, parkin baten estalki bihurtu dute, inon diren traba arkitektoniko ergel eta amorragarrienekin. Merkatuak, bertako produktuen eta bertako hizkuntzaren guneak zirenak, suntsitu egin ditu hiri honek banan-banan, batean macdonalds bat jartzeko, bestean fnac bat, harakoan etxemultzo askolako bat… Benetako hiriek ez dute horrelakorik egiten. Hirigintzan gertatu duten hori bera gertatu digute artean, musikan, politikan ere. Malenkonia-ukituak, nola ez!

**Horri loturik, gure herriari, zeure buruari, orain arteko ibiliari errepaso modukoa egiten diozu. 60 urte bildu berri dituenaren "kopetako zimurrak"?**
Bai, album bat zabaldu banu bezala. Albumean ikusten dudana tamalgarria da batzuetan, bestetan barregarria, zenbaitetan harrotzekoa. Iragan zurbila, iragan zurruna, Francoren zakurrak, ilargiaren alde iluna, alderdiko gizakia, hondakinetako bisitaria… Kopetako zimurrak dira, bai, eta ez dira azalekoak.




**PARISEN BIZI NAIZ**
Koldo Izagirre
SUSA

**TERESA LARREA**
Kazetaria

Informazio gehiago:
http://postdata.elkar.com/parisen-bizi-naiz



La nueva novela de

JULIA NAVARRO

Dispara, yo ya estoy muerto

La apasionante historia de dos familias que luchan por sobreponerse a su propio destino




N.º 1 en ventas

PLAZA & JANÉS

www.julianavarro.es

Julia.Navarro.Oficial

# elkar ARETOA

Ekitaldien agenda /
Agenda de actividades:

www.elkar.com/aretoa



77 disko berria zuzenean aurkeztu zuen **Bide Ertzean** taldeak Iruñean.



**Andoni Luis Aduriz** presentó *Las recetas de mi casa* acompañado de otros grandes cocineros.



Grandes colas en la firma de libros de **Albert Espinosa** en Vitoria.





**Joko Hezitzaileen Jardunaldi** arrakastatsuak Donostian **Haba** eta **Djeco** jolas etxeekin.



Arte Eder erakustaldien artean, **La Pajarita** etxeak bere produktuak aurkeztu zizkigun.



**Julia Navarro** presentó en Bilbao su última novela *Dispara, yo ya estoy muerto*.



Goiz pasa polita egin zuten Iruñeko haurrek **Ane Pirata**ren istorio eta jolasekin.





# JOSÉ FÉLIX AZURMENDI

## “Sorprende que, siendo tan pocos, llegaran a tantos sitios y se metieran en tantos fregados”




**VASCOS EN LA GUERRA FRÍA, ¿VÍCTIMAS O CÓMPLICES?**
Joxé Félix Azurmendi
TTARTTALO

***Vascos en la Guerra Fría, ¿víctimas o cómplices?* es la nueva obra del periodista José Félix Azurmendi (Editorial Ttarttalo). El autor revisa la relación que José Antonio Aguirre y el servicio secreto vasco establecieron con el espionaje occidental, principalmente estadounidense, entre 1941 y la muerte del lehendakari, en 1960.**

**¿Qué novedades aporta el libro con respecto a lo ya publicado sobre el tema?**
La hipótesis de trabajo arranca con las palabras de José María Gamboa, un hombre del exilio, que afirma que los vascos no fuimos traicionados por los Aliados, en especial por los norteamericanos, porque nunca nos prometieron nada y, además, porque nuestra colaboración con ellos era obligada porque defendíamos la misma causa, la de la libertad. Parecía establecido que, de alguna manera, se justificaba todo aquel desastre del proyecto del Gobierno Vasco en el exilio, sobre todo de José Antonio Aguirre, en que los americanos no habían cumplido su palabra de que, una vez vencido el demonio nazi-fascista, derrocarían a Franco.

**¿Qué le hace pensar la entrada casi clandestina de José Antonio Aguirre en EEUU?**
Me parece muy significativo que entre como un delincuente. Ya desde antes de entrar en EEUU Aguirre debía estar advertido de que el Departamento de Estado lo recibía de “aquella manera”, es decir, con limitaciones. Le obligan a bajarse del barco en el que viaja con su familia, que continúa hasta Nueva York, y a entrar discretísimamente por vía férrea en la ciudad para evitar el recibimiento que se estaba preparando.

**¿Cuál es la razón de semejante trato?**
El Departamento de Estado esgrime que se preveía la posible presencia de elementos indeseables y que había que evitarlo. En esta primera etapa en EEUU a Aguirre le dan, después de entrar de semejante manera, el estatus de profesor invitado de la Universidad de Columbia. Entra en esas condiciones y no como representante de una administración extranjera y, ni mucho menos, como presidente del Gobierno Vasco.

**Poco después comienza la colaboración con EEUU.**
Cuando EEUU entra en guerra, Aguirre se pone en contacto con los servicios de espionaje y les ofrece la red que ya se ha empezado a tejer en América Latina, sobre todo en el Cono Sur, con los nuevos vascos que han llegado exiliados. El proyecto es interesante para EEUU porque el Eje está aprovechándose de los españoles falangistas y fascistas para hacer que los países neutrales de América Latina vean con simpatía la causa del Eje y no la de los norteamericanos. Aguirre y su gente empiezan primero a perseguir a los miembros del Eje, pero muy pronto también empiezan a informar de los movimientos de los comunistas del exilio.

**¿En esta relación de personajes quién es el que más le llama la atención?**
El gran líder, para bien y para mal, porque la estrategia final fracasa, es José Antonio Aguirre. Creo que este libro también es la biografía de Aguirre, con todos sus aciertos y desaciertos. Otro de los puntos sorprendentes es que, siendo tan pocos, llegaran a tantos sitios y se metieran en tantos fregados. En este sentido, entre los espías más importantes que Aguirre manda tras el Telón de Acero está Pello Mari Irujo, un personaje que creo que merece un libro.

**Lo que comenzó como colaboración contra el fascismo finaliza de manera muy diferente.**
La lucha contra el fascismo es la que normalmente se reconoce, la otra no. Entonces, una de las preguntas que me hago como conclusión es: ¿por qué esta gente, como Antón Irala, entusiasta de la causa norteamericana, siente como un reproche que se les recuerde que trabajaron para la CIA?

**¿Víctimas o cómplices, cual es su conclusión?**
Creo que las dos cosas, son víctimas y cómplices. Son víctimas porque los maltratan, los utilizan, y también cómplices porque alguna responsabilidad hay que atribuirles a ellos. Me resulta llamativo que en 1945, cuando está terminando la II Guerra Mundial, Manu Robles Arangiz advierta del peligro de caer en el mesianismo –José Antonio Aguirre se ha convertido en un mesías–,y que señale que ¨si lo que va a venir es lo que nos tememos, no mereció la pena haber sacrificado tantas vidas¨. Eso sucede cuando Aguirre está viajando a París en un avión americano a proponer a los servicios vascos entrar en la lucha contra los comunistas, cuando en Europa todavía gozan del prestigio ganado en la guerra.

**JOXE MARI URIBARRI**
Periodista

**Más información:**
**http://postdata.elkar.com/vascos-guerra-fria**





# TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA

FOTOGRAFÍA: ARITZ ALBAIZAR

> *“Para que la trama inventada encaje en la época, hay que documentarse al menos mínimamente, de lo contrario chirriaría”*

**_Itahisa_, la última novela de Toti Martínez de Lezea (Erein, 2013), es una historia de amores difíciles y atormentados en una época en la que la villa de Bilbao, liberal e ilustrada, medra económicamente y busca nuevos espacios para su crecimiento, mientras los pueblos continúan arraigados en el pasado.**

**¿Por qué se desarrolla esta última novela entre las Islas Canarias y Bizkaia?**
¡Ideas que se me ocurren! Quería que el personaje principal fuera una especie de indiano, una figura de la que hay mucha constancia en Euskal Herria, pero América cae muy lejos... También por otras razones, que tengo buenos amigos allí, incluso uno de mis cuñados es tinerfeño, y que muchos vascos viajan a las islas a tomar el sol e ignoran su historia.

**Durante toda la novela aparecen similitudes entre los dos territorios, las dos mujeres protagonistas, incluso entre los dos protagonistas masculinos. Cuéntanos por qué.**
Bueno... no sabría responderte exactamente por qué. No hago guiones, empiezo a escribir y dejo que la imaginación me lleve. También me lleva la trama que va creándose y, por supuesto, los personajes. Sin embargo, ¿de verdad te ha parecido que hay similitudes entre los protagonistas? Itahisa e Inexa son bastante diferentes, aunque sean dos mujeres en un mundo de hombres...

**La narración se desarrolla en el siglo XVIII. Tratas distintos temas: indianos, negreros, brujería, Iglesia, esclavos, nuevos ricos, contrastes entre el mundo rural y el de las ciudades...**
